



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/07/22



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/07/22

2026ko MAIATZAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko maiatzaren 27an, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Mikaela Elizalde, Iker Isiegas eta Alaia Etayo.

BERTARATU EZ DIRENAK: Javier Auza eta M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Apirilaren ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

2026/67 alkate ebazpena Berueteko 11. Poligonoko 87. lursailean dagoen etxebizitzan bi komun berritzeko obra baimena.

2026/68 alkate ebazpena Berueteko 13. Poligonoko 68. lursailean SAI kontrol estazioa jartzeko obra baimena.

2026/69 alkate ebazpena martxoaren 5eko 17E/2026 Foru Aginduen bidez onartutako diru laguntzetara aurkeztu behar diren memoria historikoaren bi proiektuak onartzea.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/07/22

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/07/22

2026/70 alkate ebazpena onartuz Pedro Tellez eta Pilar Sanchezek aurkeztutako kontribuzioko zergaren hobari eskaera.

2026/71 alkate ebazpena onartuz Irentxu Martinena Espinalek aurkeztuta hobari eskaera.

2026/72 alkate ebazpena baimena emanez Gaztandegi Dorreari Apeztegiberriko lehenengo pisuan dagoen erabilera anitzetako gela erabiltzeko.

2026/73 alkate ebazpena baimena emanez Alejandro Garciari Apeztegiberriko lehenengo pisuan dagoen erabilera anitzetako gela erabiltzeko.

2026/ 74 alkate ebazpena onartuz Ane Arraras Arangoak aurkeztutako eskaera eta hortaz aitortzea administrazioan, 2025ko urritik aurrerako aintzinasuna.

2026/75 alkate ebazpena onartuz Ultzamaldeko kirol elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Ultzamaldeko kuadrilen eguna ospatzeko eta 300 euroko ekarpena egitea

2026/76 alkate ebazpena onartuz Gartzarongo 6. Poligonoko 15. Lursailean dagoen behi esne ustiapena Jesus Leon Satrustegui Oscozen izenetik Mikel Satrustegi Oscoz izenera pasatzea.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arteko alkate ebazpenak.

3.- Arraratsko 14. Poligonoko 319. Lursailerako udal planaren aldaketa. Behin behineko onespena.

Alkateak azaltzen du udal planaren aldaketa honi hasierako onespena martxoaren 26ko batzarrak eman ziola udalak. Aldaketa honen helburua da lurraren izaera aldatzea eta 319. Lursaileko 945 m2 landa lurretik hiru lurrera pasatzea, bertan etxebizitza bat egiteko aukera izan dezan sustatzaileak.

Izapidetzeak 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 71 eta 77. Artikuluen arabera burutu dira eta 2026ko 73. Aldizkarian argitaratu ondoren hilabeteko epean egon da espedientea jende aurrean, hots maiatzaren 16a arte . Epe horretan ez direnez alegazioak aurkeztu behin betiko onespena eman ahal zaio dokumentuari.

Hortaz bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 71 eta 77. Artikuluen arabera.

- **Behin behineko onespena ematea Arraratsko 14. Poligonoko 319. Lursailerako udal planaren aldaketari, aldaketa honen helburua izanik 319. Lursaileko 945 m2 hiru lur izaera izatea.**
- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi eta erabaki hau argitaratua izan dadin agindu Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/07/22

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/07/22

4.- Eraikuntza araudiaren 60. Artikuluaren aldaketa. Hasierako onespena

Alkateak azaltzen die bildutakoei eraikuntza araudiaren 60. Artikuluari aldaketa egitea proposatu zela hirigintza batzordetik. Aldaketa honen helburua da udal plan berrira egokitzea lursailen itxiduren ezaugarrietan. Helburua da pareten altuera murriztea, gehienez metrokoak izango dira eta beste metro bat gehienez baina beste mota bateko itxidurarekin, ez bi metroko altuera duten paretak.

Hortaz udal arkitektoak proposatuko idazkera:

60. artikulua. Finkak ixtea

Eraikuntzaren aurrealdea ezin izango dute fatxada nagusian okupatu, betiere lurzatiaren aurrealdeko espazio publikoari lotuta. Gainerako itxitura tradizionalen antzeko ezaugarri formalak izango dituzte. Ageriko harlangaitzezko hormetan oinarritutako eraikuntza-soluzioak erabiliko dira, gehienez 1 m-ko altueraraino. Horiez gain, espezie autoktonoen heskaiak eta disoluzio mistoak baimentzen dira, eta ez dira erabiliko elorri alanbrea eta material ebakitzailak hormen gailurrean, gehienez 2 metroko altuerara arte.

Egun dagoen idazkera eta araudia hau da egun:

60. artikulua Finkak ixtea.

inoiz ezin izango dute eraikinaren aurrealdea okupatu fatxada nagusian, halako moldez non eraikin hori lurzatiaren aurrealdeko espazio publikoari lotuta egongo baita beti. Gainerako itxitura tradizionalen antzeko ezaugarri formalak izango dituzte. Manpoteria bistako hormetan oinarritutako eraikuntza-soluzioak erabiliko dira, gehienez ere 3 metroko altueraraino. Horiez gain, heskaiak eta disoluzio mistoak baimentzen dira, baina ez da erabiliko elorri alanbrea eta material ebakitzailak hormen gailurrean.

Hortaz bildutakoek ikusita 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 71 artikulua arautzen duena hasiera batez onartzea Eraikuntza araudiaren 60. artikulua aldaketa onartzen dute aho batez eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute hilabete epean espedientearen jende aurrean egon dadin.

5.- Mozioak.

Ez dago moziorik. Baina alkateak azaltzen die bildutakoek alkate ebazpen bidez onartu zuela Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federakuntzatik jasotako mozioa Arguedasko udalerrian indarkeria bildutakoei eta ontzat ematen dute onespena.

Alkateak beste bi gai daudela aztertzei adierazten die bildutakoek eta gai zerrendan sartzeko baieztatu onespena behar dutenak, alde batetik ogasun batzordean aztertuko diren 2026ko aurrekontu aldaketa eta bestetik Oihanzabal eskolako ingurutzailerako termikoaren obra egiteko baldintza pleguaren onespena.

Bildutakoek ez dute eragozpenik jartzen eta hortaz biak hala biak gai zerrendan sartzen dira aztertuak izan daitezkeen.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2026/07/22

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/07/22**2026ko aurrekontu aldaketak 1/2026, 2/2026 eta 3/2026.**

Alkateak azaltzen die bildutakoei Ogasun Batzordean aztertu dutela aurrekontuari 3 aldaketa egiteko beharra, alde batetik lhabengo aisialdi guneko inbertsioaren partida, aurrekontua ez zela sartu eta 34.000 euroko fakturak daudela kontabilizatzeko, hortaz ikusita tesorería gerakina dagoela, eta 1998/270 Foru Dekretuaren 35. Artikuluak arautzen duena non adierazten den ez ohiko suplementuen partidak sortu ahal direla tesorería gerakina erabiliz. 2025eko kontuetan agertzen den tesorería gerakina 338.723 eurokoa da, hortaz ez legoke arazorik partida berria sortzeko.

Bigarren aurrekontua aldaketa, hots 2026/2, Baso babeslearen bigarren fasearen partidaren aurreikuspenak igotzeko behar da, aurrekontuan 70.000 euroko aurreikuspena onartu zen baina aldiz gastuak 93.000 eurora igo dira, hortaz eta aurreko aurrekontu aldaketaren kasuan bezala, gerakina erabiliz partidaren aurreikuspena igoko da, kreditu suplementu bidezko aurrekontu aldaketarekin.

Bukatzeko eta 2026/3 aurrekontu aldaketa onartzeko, alkateak azaltzen du amortizazioaren partidaren aurreikuspenak ere gainditu direla, Rural Kutxako amortizazioaren aurreikuspena 25.000 eurokoa izango zela aurreikusi zen, baina 27.000 eurokoa izan da hortaz, kasu honetan ere kreditu suplementu bidezko aurrekontu aldaketa erabiliz 1998/270 Foru Dekretuaren 35 artikulua jarraituz, tesorería gerakina erabiliko da amortizazioaren partidaren aurreikuspenak igotzeko.

Hortaz bildutakoek alkateak azalduko jarraituz aho baatez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute 1998/270 Foru Dekretuaren 35. Artikulua jarraituz:

Hasiera batez onartzea 2026/1, 2026/2 eta 2026/3 aurrekontu aldaketak eta hortaz tesorería gerakina erabiltzea aurrekontu aldaketa hauek gauzatzeko kreditu suplementu edo ez ohiko kreditu bidezko aurrekontua aldaketak onartuz.

Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu 1998/270 Foru Dekretuaren 37 artikulua arabera, 15 egun baliodunen epean jende aurrean egon dadin aurrekontu aldaketen espedienteak alegazioak jartzeko aukera irekiaz.

Oihanzabal eskolako ingurutzaila termikoaren obra egiteko baldintza pleguaren onespina.

Alkateak azaltzen du, jada arkitektoak proiektua egin dutela eta orain obra esleitzea dagokiola udalari. Hori egiteko baldintza plegua prestatu da eta bertan adierazi dira obra eta esleipena arautuko duten irizpideak. Alde batetik epearen irizpidea, obra irailaren 1etarako bukatua egon behar da eta luzatzekotan beti ere obrak ez luke eskolako ikasturte berriko funtzionamendua eraginik izango. Obra hau Hezkuntza Departamentuko enmendakin batekin burutuko denez, obraren justifikazioaren azken data urriaren 21eko dela gogoratzen du alkateak.

Bestetik esleipena baloratzeko irizpideak zehazten ditu alkateak, 20 punturekin baloratuko da obraren ezagutza egiaztatzeke aurkeztu behar duten memoria teknikoa, 5 punturekin ingurugiro irizpideak zaborren kudeaketaren inguruan. 60 punturekin eskeintza ekonomikoa, 5 punturekin berme epearen luzapena eta 10 punturekin, obra egiteko epea murriztea.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2026/07/22



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/07/22

Esleipena 2018/2 Nafarroako Kontratu Publikoen Foru Legearen 71. Artikulua jarraituz burutuko dela adierazten du alkateak.

Bildutakoek plegua aztertu ondoren aho batez onartzen dute Oihanzabal eskolako inguratzaile termikoaren obra egiteko baldintza plegua eta proposamenak aurkezteko epea 20 egunekoa izan dadin adosten dute.

6. - Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Oihanzabal eskolan siesta zerbitzua jartzeko proposamena atera da batzordetik eta bi aukera aztertzen ari dira, alde batetik Aramark enpresan eskolan duen sukaldariari lanaldia ordu erdiz luzatzea urtean 1500 euro inguruko gastuarekin edo haur eskolako garbitzaileari lanaldia luzatu, honen gastua orduko 15.80 euro ingurukoa litzake.

Bestetik azaltzen du hurrengo ikasturteko garraio zerbitzua antolatzen ari dela Nafar Gobernu eta ruta desegokiak esleitu dituzte, alde batetik Beruete-Igoa-Arrarats eta bestetik Udabe-Orokiet-Gartzaron, hortaz ikasleak eskolatik pasako lirateke baina ezin gelditu bertan autobusean pasatzen duten denbora luzatuz. Kexa bat aurkeztuko du batzordeak Garraio Atalean.

Bestetik haur eskolako jantoki zerbitzua bertan behera geldituko da hurrengo ikasturterako eta Ultzamako haur eskolan gauza bera gertatuko denez, Ultzamako udala Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan dago Larraintzarko ikastetxeko jantokia erabiltzeko baimena onartu dezan, Aramark enpresak zerbitzu hori emateko.

Osasuna futbol federaziotik proposamena iritsi da hurrengo ikasturtera begira futbol klaseak ematea, taldea gutxienez 9 hurrez osatu beharko lukete. Informazioa zabalduko da interesdunek izena emateko.

Kultura eta Euskara Batzordeak. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Ekainaren 5ean Basaburuko eguna ospatuko da, antolaketak bukatuak daude jada eta udalak aurrekoetan aipatu bezala musika kontzertuak hartuko ditu bere gain.

Bestetik eskualdeko euskara teknikari berriak lanpostua hartu du jada eta bilera egingo da harekin ezagutzeko eta egitasmoak finkatzeko.

7.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du informazioa.

Eguneko egoitza martxan jartzeko Nafar Gobernu baimena iritsi da eta orain plaza kontzertatuen tramitazioa egiten ari da udala.

Solerak eskualdean egin behar duen proiektu pilotoaren aurkezpena burutu zen eta ekainean jarriko denez martxan, proiektua zabaltzea eta pertsonak erabiltzea da helburua horretarako ere eskualdeko gizarte zerbitzuak eta osasun etxeak lan egingo dute. Azaltzen du proiektu honetan sartzen diren baliabideak, fisioterapeuta,





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2026/07/22



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/07/22

psikologoa, memoria tailerrak eta beste dohakoak direla eta proiektuak ongi funtzionatzeko badu beste eskualdeetara zabalduko dela adierazi zela Soleratik, beti ere Nafar Gobernuako ekarpenarekin.

Ekainaren 5ean zaintzen inguruko dokumentala eta antzerkia eskainiko da Jauntsaratsen.

Batukada jardunaldiak arrakastatsuak izan zirela ere adierazten du alkateak.

Fundación Empleo erakundeak Herriak Bizirik egitasmoa martxan jarri nahi du eta haren aurkezpenean egon zela alkatea azaltzen die bildutakoei. Proiektu honen egitasmoa da herriak elkartzea sareak sortuz eta horrela hainbat ekimen edo dirulaguntza eskatzeko aukerak izatea. Hainbat egitasmo martxan daudela adierazten du doakoak direla horien artean musika tailerrak edo adinduendako gimnasia klaseak. Bildutakoei galdetzen die zer iruditzen zaien proiektua udalak atxikimena egiteko. Bildutakoek gaia eztabaidatzen dute eta hainbat proiektutan eta elkartetan sartua dagoenez udala momentuz ez atxikitzea adosten dute.

8. Errege-galderak

Ez dago.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 20:05 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du

